

BATASUNA

IA BURRUKA

ALDIZKARI LANGILEA

10 pta.

Eraskina 6 alea

**GAZTEIZKO
BORROKAK**

OTSAILA 1976 ko 8ean

**Komunisten Batasunak
argitaratua**



GAZTEIZKO BORROKAK

Urtearen hasieran, eta Comisio - Obreroek (CC.OO.) fabriketan soldata-eskakizunen inguruan burrukatzeko beharraz egindako lanaren ondorioz, burruka giro bat sortzen da Gazteizen. Hasieran giro hori, mini-asanbleen inguruan bildu zen.

Zehazki, mini-asanbleei eta asanbleei esker, burruka girorik beroena - FORJAS ALAVESAS (1.200 langile) delako fabrika sortu zen lehenik.

Asanblea hauetan, lehenabizi Plataforma Errebindikatzailerak Baterakoi - bat lantzen da, eta gero, negoziatzaileko moldeak aukeratzen dira: juradoak - baztertu eta asanbleetan komisio ordezkariak aukeratu, juradoen ordezkariak.

Batez ere, bi ardatz horietan biltzen dira, epe batez, egiten diren asanbleak. Gero, azkenik, fabrika osoa biltzen duen asanblea bat egiten da, - eta bertan aukeratzen da nagusiekin tratatutako ibili behar duen komisio ordezkaria, Hauexek dira eskakizunak:

- 6.000 peseta, guztientzat berdin.
- 40 ordu astean
- 28 eguneko bakazioak
- % 100 gaisotasunetan eta erretiruan
- gaueko txandarik ez
- kategorien arteko desberdintasunak gutxitu.

FORJAS ALAVESAS-eko langileek eskakizun horiek aukeratu eta landu ondoren, komisio ordezkari bat aukeratu ondoren, "enlaze eta juradoen dimisioa" proposatzen dute. Enlazeak berehala dimititzen dute, baina Sindikatoak ez ditu dimisio hauek onertzen. Halaz ere, enlazeak asanblearen beste kide bat bezala portatzen dira, inolako bereizkuntzarik gabe.

tzarik gabe.

Hemendik aurrera, komisio ordezkariak erabaten ditu eskakizunak nagusiarengana.

Baina nagusiek EZezko garbi bat ematen dute.

Ondorioz, FORJAS ALAVESASeko langileak burrukan abiatzen dira urtarrilaren 9.ean, eta fabrika gelditu egiten dute. Hasieran, ez dira fabrikatik ateratzen, eta bertan ez dute asanbleak besterik egiten.

Orduan, nagusiak, lock-out bat egiten, fabrika isten dute.

FORJAS ALAVESASeko huelga hau Gazteiz guztiko burrukan hasiera da. Ondoren, MEVOSA izenekoa (2.300 langile) hasiko da burrukan eta, egun pare baten buruan, GABILONDO (450), APELLANIZ (800) ARANZABAL (1.100) eta geroxeago CABLE - NOR (600) eta AREITIO (500).

Fabrika gehienetan Comisio Obrero bat dago, baina ez oso zabala.

Fabrika bakoitzak bere asanbleak egiten ditu eta bertan aukeratzen dira komisio ordezkariak. Komisio hauetan ez dira enlazeak sartzen (ARANZABALenak ezik). MEVOSAenean enlaze eta juradoen dimisioa eskatzen da. Fabrika bakoitzeko asanbleetan sortzen da burrukan ari diren fabrika guztiak bilduko dituzten asanbleak egiteko beharra eta baita ere komisio ordezkariak elkarrekin koordinatzeko beharra.

Urtarrilaren 26.ean egin zen lehengo asanblea amankomuna (4.000 langile). Bertan, lantegi bakoitzeko eskakizunak eta egoera azaltzen dira eta bu-

rruka guztiak elkartu eta bateratzeko asmoa sendotu egiten da eta asanbleak erabaki bat hartzen du: bertan zuzendu ko dela Huelga Orokorra.

Baina, benetan, burrukak zuzenduko dituen komisio ordezkarien koor dinatzailea izango da. Komisio hauek elkarrekin biltzen direnean, fabrika-bakoitzeko asanbleak erabaki duenaren arauera, berriro ere asanblean aurrean azalduko dena diskutitzen da. Eta asanbleak dute azkeneko hitza.

Egun pare baten edo hiru baten buruan, edo egoerak baharra adierazten duenean egiten dira asanblea aman komun horiek. Asanblea nagusi hauetan burruka herri guztira zabaltzeko premia eta errepresio guztiak (nagusiena nahiz polizierena) galerazteko beharra azaltzen da.

Patronala, huelga aurrera doala ikusirik, bere hartan sendo jarraitu nahi du, eta behin eta berriro ukatzen da komisio ordezkariekin harremanak izatera. Bestalde, despidoak hasten dira eta FORJAS ALAVESAS delako fabrikan jereenteak 26 langile kaleratuño dituela azaltzen du.

Otsailaren bigarrenetan, astelehena, manifestazio batek gutxienez -- 5.000 langile biltzen ditu Gazteizen, eta zirkulazioa gelditu egiten da. Manifestazioaren buruan komisio ordezkariak jartzen dira eta bi pankarta: - "Solidaridadea burrukan ari diren langileekin" eta "Negoziatu nahi dugu".

Inder errepresiboak, manifestazioa desegin nahian, 50 zauritu egiten dituzten.

Detenitzeko, despeditzeko eta enpresak isteko mehatxuak ugaritu egiten dira.

Urtarrilaren bukaeretik otsailaren hasiera bitartean, burruka-giroa zabaltu egiten da Gazteiz guztian. Horrela, hauzotetan 3.000 emakume

baino gehiago, gehienak burrukalarien emazteak, biltzen dituzten asanbleak egiten dira. Asanblea hauetan, hauzotako problemak estudiantzen dira, eta anbulato riak, haur-zaindegiak, eskolak, jostaleguak, bileretako lekuak, etab lortzeko burruka egiteko posibilidades sartzen da estebaidan.

Bestalde, lanean ari diren langileekin ere asanbleak egiten dira. Asanblea hauetan, informazioa zabaltu ondoren, lanean ari diren fabriketako egoera aztertzen da, eta burrukan hasteko era aukeratzen da. Asanblea hauetara 3.000 langile baino gehiago biltzen dira.

Egun hauetan, huelga probintzira zabaltzen da, hala nola Salvatierrara (ORBEGOZO) eta zenbait lantegietara.

Otsailaren 9.az gero, burrukan ari diren fabriketako ordezkariak biltzen dituzten asanbleetan, oraindik lanean ari diren langileen ordezkariak, hauzotakoak, sendagintzakoak, eskoletakoak, unibertsitatekoak etab biltzen dira.

Ordezkeri-asanblea hauetara erakunde langile eta politikoetako ordezkariak ekarri nahi dituen proposamendua baztertu egiten da.

Asanblea amankomunetara, herriaren zati guztiak datoz.

Otsailaren 9.ean, astelehena, enpresa guztiak, elkarturik, taktikak aldatzen dute: fabrika guztiak batera irekitzen dituzte eta langileak lanera deitu.

Baina erantzuna bortitza da: ez dago inor lanera, enpresa batzuetako eskirol bakar batzuk ezik. Eskirol hauek kontua garbitzeko, pikete bat osatzen da, eta eskirolengana joaten da piketea, etxez-etxe, lanera joan ez ditzaten inbitatuz. Halaz ere, batzuk joan egiten dira, eta pikete batek galerazi egiten die lortokiko sarrera.

Egun hauetan eta asanblea aman-komun baten irteeran, 5 langile harrapa

tzen ditu poliziak, burrukan aparteko papera joketutako langileak.

Fabriketako asanbleak martzan jar-tzen dira gertakari honen aurrean eta asanblea amankomun batean Huelga Orokor bat erabakitzen da otsaileko 15.e-rako, konsigna hauekin:

- detenituentzako eskatasuna
- gure ordezkarien bidez negoziatu nahi dugu.

Otsailaren 13 eta 14.ean kan-paina bat egiten da, manifestazio eta bilarekin, eta konsigna hauek zebiltzen dira:

- detenituentzako eskatasuna
- negoziatu nahi dugu
- langile gera, batu zaitez
- hilaren 15.ean, huelga orokorra.

Ageri bat ateratzen da fabrika bu-rrukalarien izenarekin, gainerantzeko langileei eta herriari huelgarako deia egiten.

Dei honek erantzun bortitz bat i-zango du. Beste 15 enpresa ateratzen dira huelgara. Gazteizko ikasleak ere (5.000) erabat abiatzen dira burrukan. Denda batzuk ere itxi egiten dira.

Maisuek ere, bere eskakizunak - azalduz geldi-aldi tekniko bat egiten dute egun horretan.

Baina maisuek egindako asanblee-ten, jarrera hau azaltzen da gehienik: ez nehasu langileekin, langileen bu-rrukek "politiko"ak direlako.

Emakumeen asanbleak ibilaldi ba-terako deia zebiltzen dute: merkatura doaz boltaa hutsekin, eta boltaa hute-ekin bueltatzen dira ere. FORJAS-runtz abiatzen dira, baina, haxe iritxi bai-no lehen, poliziak sakabanatu egiten - ditu.

Egun horretan bertan, 15.ean mani-festazio zabal bat egiten da eta bertan hauxe oihukatzen da:

- preso langileentzako eskatasuna
- langile, ikasle, solidaridadea.

Guzti hori goizean. Arratsaldean, asanblea amankomun baterako deia zabal-tzen da eta 5.000 langile baino gehiago biltzen dira. Batzuk elizaren etarien gelditu behar dute, leku-faltaz.

Asanblea hau bukatu ondoren, beste manifestazio bat egin nahi da, baina - poliziak zai dago atean eta taldeak saka banatu egiten ditu. Halaz ere, zenbait lekutan, 1.200, 600, 500 etab langile biltzen da manifestazioan.

Hurrengo egunean, bezperen huel-gan aritutako enpresa batzuk lanera buel-tatzen dira, baina beste batzuk es, huel-ga hartan bere eskakizunak defenditu na-hi beitzituzten.

Ikasleak eutsi egiten diote lan-gile Mugimenduarakiko solidaridadeari, baina otsailaren 17.ean lanean hasten dira.

16. horretan, detenituak kolera ateratzen dira, eta honek sendotu egiten du langileen kemena eta burruketasuna.

Hilaren 18.ean, beste bi langile detenitzen dituzte, burrukan paper apar-ta joketutako langileak. Langileak Ro-misarieta eramanak dira, komisiorekin elkarriketa bat egin dezaten.

Komisarioak, aitakeriz, hauxe esaten die: ez dagoela negusien ez lan-gileen alde, ordena publikoa fordetzea dela bere papera, etab. Bitarteko pap-er jokatu nahi duela eta lanileak eta ngusiak elkarrekin bilduko dituen asanblea bat eratuko omen du, negoziatziorako.

Egun horretan bertan, zabaldua zegoen asanblea amankomun baterako deia, eta bertara azaltzen dira bi langile ho-riek. Asanblearen aurrean azaltzen du-te komisiorearen proposamendua eta asan-blea guztiak amaten du ezetzkoa; ez omen dituzte bitartekoak behar, eta hor omen daude ordezkari aukeratuak negoziarioa erameteko.

Enpresetako asanbleetan, polizi-aren jokaera salatzen da, eta zeinen zer bitzuan dauden esplikatzeko da.

Komisarioak mehatxu bat botatzen du: - manifestazioak aurrera egiten badute, era guztiko asanbleak geleraziko ditu.

Era berean, eta burrukaren hasieratik bertatik, aldizkari eta egunkari burgesen jokera salatzen da, hauen ixila - eta gezurrak Gazteizen gertatutakoari buruz.

Langile gehienek ulertzen dute zeinen zerbitzura deuden aldizkari-egunkariak eta jomunikabide guztiak. Argi ikusten dute nagusien prentsak nahi duena esaten duela, ez besterik. Beraz, asanbleetan aldizkari-egunkariak boikote atzea erabakitzen da, ia hasieratik.

Egun hauetan nasten da asanbleetan nagusiei tratutan hesteko esijitzeko bide harra. Nagusi guztiak eta langile guztiak batera.

Despeditu gehiago egon dira; APELLANIZenean 7 langile.

Fabrika burrukalariek beste dei bat zebiltzen dute: negoziazioa eta despedituen berradmisioa dira eskakizunak. Enpresarien kontseiluaren erantzuna ezeko borobil bat da.

Otsailaren 21.ean beste asanblea amankomun bat egiten da, eta manifestazio berriak erabakitzen dira, langileen ordezkari zuzenekin negoziatu eta despedituak onartu dira helburuak.

Beste dei bat zabaldu da ere: 22.az gero, huelga orokor mugageba.

Despedituen berradmisioa eskatzen duen konsignak ez du detenituen askatasuna eskatzen zuenak haina erantzun lortu, eta dei honek ez du hain arrakasta handia lortzen. Hilaren 23.ean sei enpresa ateratzen da kalera eta irakasleek ere erantzun arinagoa ematen dute.

Egun berberean, asanblea amankomun bat egiten da, gertatutakoaren berri eman eta despedituen kontuen insistitzen

da, nagusigoaren errepresioaren esplikazio politiko bat emanez. Asanblea honen ondoren manifestazio bat egiten da, bai na apur bat eskasa.

24.ean, solidaridadez burrukaratutako fabrikak lanera sartzen dira.

Bezperatik, eta ARANZABALeneko burrukaren atzerakada ikusiz, eta nagusien emaitza eskasa ikusiz, enpresa honetako enlaze eta juradoak, asanbleatik aparte, eliz batetan sartzen dira, gose-huelgan. Bertan jarraituko dute hilaren 27. arte. Orduan, nagusiek hauxe ematen dute:

- % 14, 5eko gorakada
- urtean 14.000 pesetetako gorakada
- 25 eguneko ordaina
- ez zigorturik, ez despediturik.

ARANZABALenean, asanblea bat egin ondoren, Martxoaren lehenengoan lanean hastea erabakitzen da. Nagusien emaitza hau langileen arrakasta bezala hartzen da, eta langileek garaitu dutela pentsatzen dute.

ARANZABALeneko asanblea honetan, ordea, beste erabaki bat hartzen da: zor bat omen dute beste fabrika burrukalariekin eta despedituen alde burrukarako deia zabaldu bezain laister, ARANZABALeneko langileak huelgara aterako direla.

Egun berberean, CABLENOR-enean, tratutan hasten dire ere, Direkzioak hauxe eskaintzen du:

- 3.500 pesetetako gorakada
- mi meila beherenak kendu
- ez zigorrik, ez despediturik

Enpresak jartzen duen kondizio bakarra, martxoako 2.ean lanean astea da.

CABLENOR-eko langileek, ARANZABALeneko erabaki berberak hartzen dituzte.

Hilaren 28.ean beste manifestazio bat dago, eta oihu hauek entzuten dira:
-despedituak lanera
-langile gara, batu zaitez

Manifestazioak aurpegiz egiten du :
topo poliziarekin. Batzuk alde egin na-
hian debiltz. Baina oihuke agintzen da
ez dezala inork alde egin. Manifestazi-
oak ez du atzera egiten. Polizia ke-bon-
bak eta malko-granadak botatzen hasten
da, eta gomazko balekin tiroka, baina -
ez manifestanteen aurka zuzenean, baizik
eskaparateen eta pareten kontra.

Poliziak aurrera egiten du, eta ma-
nifestatzaileek harrijoka erantzuten du-
te.

Manifestazio hau bukatu ondoren, e-
ta arratsaldeko zazpietatik hamarretara,
griak Gaiteizko kalean debiltz, tops-
tzen duten bakoitza kolpatuz.

Martxoko 3.erako beste dei bat za-
baltzen da: huelga orokorra Gaiteiz guz-
tian.

Matxoko 3. honetan gertatutakoak
bertako eta atzerriko aldiakari burge-
sak papel ugari erabiltzera bultzatu di-
tu. Hemen egun aipagarri honetan gerta-
tutakoaren berri laburra emango dugu.

Hirurgeitamar enprestako 15.000
langile baino gehiago huelgaratu ziren,
eta gaineratik inas-leku guztiak. Dendak,
berriz, berez itxi ez zutenak, huelga-
piketeek itxi zituzten goizean goiz.

Langile talde ugari atera zen goi-
zetik inguruko hauzoetatik Gaiteiz-runtz.
Poliziak estakeriz sakabanatu zituen ma-
nifestazio hauek, ke-potez eta gomazko
balez.

Joan den egunetan gertatu ez beza-
la, oraingo honetan, manifestatzaileek
ausarki egin zioten kontra poliziar e-
ta harrikoskorrez, makilez eta ahal zu-
tenez baliatu ziren, zenbait puntutan
polizia gaineratu arte.

Egoardiartean, langileek h auzoeta-
ra biltzen dira (Adurza, Arana ...) eta
serbide guztietan barrikadak egiten di-
tuzko blokeekin. Eta han gelditzen dira

poliziarren zai. Gaueko hamarrak bitarte
an irauten du manifestatzaileen eta poli-
ziaren arteko burrukak. Kale askotan po-
liziak ezin desegin izan zituen barrika-
dak. Poliziak batzutan harmak erabili zi-
tuen eta baita ere zauritu ugari egin.

Baina poliziarren jokaerarik odoltsu-
ena arratsalde erdian gertatu zen San
Francisco de Asis delako elizan. Eliz ba-
rruan bost mila langile inguru pilatzen
da fabrika-langileen asanblea amankomun
batean. Poliziak inguratu egin zuen eli-
za eta galerazi egin zian sarrera zen-
bait fabriketako orderkariak. Eta ondo-
ren, poliziak ke-bonbak eta malko-gasak
bota zituen eliz-barrura. Bertan zeuden
langileak, kearen eta gasen eraginez la-
terrean atera nahi izan zuten. Momentu
honetan egin zuen poliziak egiazko serra-
ki bat, masa desarmatuak metrailatuz. E-
giazko gizon-ehiza honen ondorioz ehunka
izan ziren zaurituak (gehienez balaz) e-
ta hiru hilak (eta egun batzuk geroago,
laugarren bat hil da).

Hauxe da, oraingoz, martxoaren 3.a
ren honetan gertatutakoaren neurria. Po-
liziarren gorrotua eta hamorrua zaurituak
jasotzen zituen hospitalako ateterraino
heldu zen. Santiagoko Hospitalako senda-
gile eta gaixo-zaindarien argitaratutako
agiri batean hauxe irakur daiteke: "Ma-
nifestamos nuestra protesta ante el em-
pleo en la misma puerta de servicios de
urgencia de este hospital de gases la-
crimógenos contra un reducido número de
personas que se interesaba por los posi-
bles asistidos y que llegaron a afectar
al personal sanitario que se encontraba
en ese servicio de urgencias a máximo ren-
dimiento".

Gau hartan bertan, Enpresen eta Gaz-
teizko herri langilearen Ordezkarien a-
sanbleak, asteazken horren gaueko hamai-
katan, dei hau zabaldu zuen: "A la Clase
Obrera y Pueblo Trabajador de Guipuzcoa,
Vizcaya y Navarra. MUERTOS Y CIENTOS DE
HERIDOS DE GRAVEDAD. Os pedimos solida-

ridad. Huelga General de Euskadi. Asam-
bleas y Manifestaciones. URGENTE."

Hurrango egunean, martxoko 4.enean, hiria peralizaturik zagoen, hila beza-
la. Poliziak indarkeriz ireki zituen
denda tatzuk, baina ez zen haietara ing-
sartu. Hauzoetan, huelga-pikete batzuk
gorde egiten zituzten oraindik barrikada
batzuk. Poliziak xofar eta ibiltariak
behartzen zituen barrikadak kentzera, e-
ta gero, hiria garbitu zutelako eskerrak
ematen zizkien.

Arratsaldean, berriro ere, manifest-
ariak bezperako berbera oihuztatzen zu-
ten (despeditual lanera, langile gara,
batu zaitez) eta, gainera, "Justizia",
"detenituak kalera". Poliziak eta mani-
festariak maiz jardun zuten elkar-joka,
eta hamarka langile detenitu zituen po-
liziak.

"El Correo Español" egunkariak zi-
enez, "junto a la iglesia de San Fran-
cisco de Asis se había instalado una pe-
queña cruz de madera y una vela, rodea-
da de pequeñas piedras en círculo y una
caja para las aportaciones voluntarias.
Asimismo, podía verse un reguero de san-
gre de unos 30 metros y en el suelo la
palabra 'justicia' escrita con la misma
sangre. Alrededor de las 12 de la maña-
na la policía hizo acto de presencia en
el lugar y procedió a recoger todos esos
objetos, siendo abucheados por los veci-
nos, a lo que respondieron con disparos
de balas de goma."

Herriak langileekiko azaldu duan

solidaridadearen sakontasunak burgesak
berak polizia arbuiatzera bultzatu ditu
Horrela, aiuntamentua eta diputazioak
adibidez, bere "atsekabea" eta "akordio-
rik-eza" aitortu dute.

Martxoaren 5.ean Huelga Orokorra-
ren jarraipenaren babesa Euskadi guztira
zabaltzen da (Iruinara eta Bilbora ba-
tez ere). Gezteizen, hiru langile asa-
sinatuen entierrua egiten da. Beste sei
hil-zorian daude.

"Informaciones" aldizkari burgesak
horrela ematen du entierruaren berri:

"Al finalizar el funeral en la catedral,
los tres féretros, en lugar de ser tras-
ladados en fúgonas fúnebres, a petición
de las personas asistentes, han sido lle-
vados a hombros. Los presentes han pe-
dido a gritos de "A hombros, a hombros",
que el transporte de los féretros se hi-
ciere a pié.

Después de oírse también voces de "vuel-
ta a la ciudad, vuelta a la ciudad", el
cortejo se ha dirigido al centro de Vito-
ria. Los tres féretros han sido llevados
hacia el Gobierno Civil y posteriormente
el cortejo ha desfilado por las calles
más céntricas de la ciudad.

En el cortejo se han concentrado miles
de personas en cifra que ya puede inclu-
so alcanzar las 20.000 ó 30.000. En nu-
merosas ocasiones los asistentes han pro-
rumpido en aplausos."

Eta desfilek lau orduz jarraitu
zuen hirian eta hauzoetan.

=====

eraskina

=====

GAZTEIZKO BURRUKARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Asanblea amankomunak.- Esan dugunez, asanblea hauetara burrukan ari diren fabrika guztiak azaltzen dira, eta bertara azaldu nahi duten guztiak. Komisio aukeratuen ordezkariak eramaten dute asanblea hauen zuzendaritza. Ordezkari hauek, hitzegiterakoan, lehenik, zein komisioko ordezkari diren adierazten dute. Asanblea amankomun hauek ez dira sekula erabakileak. Erabakiak fabrika bakoitzeko asanbleetan hartzen dira.

Propaganda.- Propaganda.-idatzi bakarra fabrika burrukalarien asanbleek egindako agiriak izan dira. Beraz, ez da ia propaganda idatzirik bota. Masen artean bildur bat zegoen, honako edo halako erakunde baten interesak ez ote ziren masen interesekin nahastuko. Egia esan, talde bakar batek bota zuen propaganda idatzia, taldearen izenean, eta burrukan ino- lako itzaliz izan ez duen talde bat izan da. Masak oso gaitziki hartu zu ten talde honen jokaera, eta asanblea amankomun baten irteeran talde ho rren horriak topatu zituztenean, irakurri gabe puskatu zituzten. Bat- zuk, are gehiago, propaganda hura poliziak edo nagusiek egina zela zio- ten.

Indar politikoak eta haien aukerabideak.- Talde politikoek Gazteizen dituzten militanteak gutxi dira oso, ez baitira aspaldian lanean hasi. Halaz ere, ezker iraultzailearen itzala haundia izan da burruka haue- tan. Izan ere, burruka hauen azalpen batzuk (Vertikala baztertzeko jo- ra, komisio ordezkarien aukera eta hauen koordinazioa, fabriken arteko asanbleak...) talde eskertiar batzuk defenditzen duten politika dira. PCE-ri dagokionez, berriz, burrukaren hasieratik bertatik sniatu zen burrukak itatzten, arrakasta bat lortua zelakoan eta indarra frogatu on doren lanera itzuli behar zela eta juradoek negoziatu zutela esanez. Jeneralean, argi esan daiteke, PCEkoek manifestazioetan erarik oportu- nistenean, gogorren papera jokatu nahi izan dute manifestazioetan.

Plataforma antikapitalistak, Comisio Obreroak (CCOO), Fabriketako Taldeak.- Gazteizen ba dago fabriketako CCOOak biltzen dituen zera bat, "Coordi- nadora Obrera" deritzana. Fabriketako CCOOetan, plataforma antikapita- listetako zenbait kide dago, baina ez plataforma hauen ordezkari bezala. Plataformek, organizazio berezi bat osatzen dute eta erakunde honek al- dizkari bat argitaratzen du, "Poder Obrero". CCOOal funtsezko paper bat bete zuten burruka sortu-aurreko garaian, Pla- taforma Errebindikatzailleen inguruan. Ondoren, burruka martxan jarri zenean, Fabriketako asanbleak babestu zituzten. Aipatu behar da, ordea, gutxi direla Gazteizen CCOOak, eta bakoitzak bu- rrukalarari gutxi biltzen dituela, gainera.

Hauzoetan.- Orain arte, ez zegoen hauzoetan erakunde egonkor bat. Bu- rruka-aldi honetan, berriz, mugimendua langileen emazteek hauzoetan egin- dako asanbleetatik irten da eta, jeneralean, asanblea hauek bete dute dirua jasotzeko eginkizuna.

Herriaren erantzuna.- Esan dezakegu, bildurrik gabe, herriak ondo eran- zun duela diru-kontuari dagokionez, taberna guztietan eta nunnahi ja- rri dira eltxetxoak. Eta laguntza honen eragingarri politikoa berriz, batez ere errepresioaren aurkako erantzun bat izan da. Honexek espli- katzen du zergatik dan herriaren babesa mobilizazio-mailak sortu zela.

keena baino apalagoa.

Azken ohera.— Burruka heuen hedadura, iraupena eta burrukatasuna, zer baiten adierazle dira, noski: langileen artean dagoen haserre eta ezinegonaren adierazle. Abanguardiaren organizazio-maila, berriz, eskasa da. Bestalde, jendeak argi ikusi du zein den Sindikatoaren klase-kutsua, nola dagoen nagusien zerbitzuan, nola jokatzeko den langileen kaltetan. Azkenik, hauxe azpimarkatu nahi dugu: gaurko egoerak behar bat planteatzen du. Burruka baretzerakoan gudua beste era batera jarraituko duen aukerabide politiko bat.

GAZTEIZKOEKIN BARRERA

Gazteizko burruken harian, talde politikoek ez dute benetako ahaleginik egin burruka horiek zabaltzeko, edo behintzat informazioa emateko.

Baina martxoaren hiruan gertatutako hilketan ondorioz, solidaridadezko olatu bortiz bat zabaltzen da, Euskadin bereziki. Hurrengen egunetik, Nafarroan Huelga Orokor bat gertatzen da, langileak, bere kasa, kalera ateratzen direnean eta poliziari gogorki aurpegia ematen diotenean (barrikadak eraiki eta gorde, jendetza ugari manifestazioak...) Erantzum hau ez da Iruinako hirira mugatzen, baizik probintzi guztira zabaltzen da (Estella, Tudela...) manifestazio gogorrez eta guardia zibilar dantzaz-azaziz.

Bizkaian eta Gipuzkoan, zenbait eskualdetan behintzat, erantzuna ere lasterrean ematen da (manifestazioa Basaurin, Goiherrin eta Errendarin geldialdiak...)

Gure erakundeak ere Huelga Orokorrarako deia zabaltzen duen, Gazteizko burruka esplikatuz eta solidaridade eginkor baterako deia eginik. Hots, hauxe da guretzat solidaridade eginkor baterako deia eginik. Hots, hauxe da guretzat solidaridadea: Gazteizko langileek defenditzen dituzten eskakizun berberak, eta gure eskakizun bereziak defenditu. Horregatik zabaltzen guren Gazteizkoen eskakizun-zerrenda:

- despedituak lanera, detenituak kalera
- nagusiekiko negoziazioa asanbleetan aukeratutako komisioen eskutik.
- asanbleak aurre-baimenik gabe egiteko eskubidea lortu.
- ez CNSari; CC00ak sendotu.

Horrela, Huelga Orokor honen helburua hauxe izango zen: burruka partzialak burruka nagusi batetan elkartu, ez protesta-keinu huts bat egin.

Langile-Mugimenduarien lan egiten duten erakunde politiko guztiek matxoko zortzirik Huelga Orokor baten deia zabaltzen dute Euskain. Nafarroako Langile-Kontseilua, lehendik manifestazioak babestun bazituen ere, ez zen orain dei horretara bildu. Ondorioz, Nafarroan huelga "Laminaciones de Lesaca" delako enpresan eta Vera de Bidasoan dauden enpresetan bakarrik egiten da.

Matxoko 8. horretan, Euskadiko hiri eta herri guztiak grisak eta zibilek okupatuta zeuden, langile talde koskor bat bildu bezain laster hura kupidarik gabe sakabanatzeko helburuz.

Baina grisen eta zibilen aurrean, Gipuzkoan, Bizkaian, eta Araban, geldialdi guztiz orokorra izan zen, behintzat orain arte ezagutu den orokorrean. Aldizkari burgesen hitzetan, 350.000tik gora

ren huelgaratutako langileak. Pariseko irratiak, berriz, milai erdiko kopurua aipatu zuen.

Gipuzkoan huelga dendetara ere zabaldu zen (inoiz baino areago), banku-etxetara, ikas-lekutara eta sendagintzara.

Hiru probintzietan egin ziren bilkurak eta manifestazioak, baina Bizkaian lortu zuten manifestazioak burrukatasun eta hedadura zabalena. 15.000 Basaurin, 5.000 Santurtzen, 2.000 Barakaldon eta mila mordoska bat Bilboko hiri-eremuan. Basaurin, zibilek metrailatu egin zituzten manifestariak eta Vicente Anton Gaztea akabatu zuten.

Bilbol bertan, arratsaldean, gudu larriak gertatu ziren poliziarekin, eta zenbait puntutan barrikadak eraiki ziren. Altos Hornos-enean, bere 1.200 langilek fabrika bere eskuetan gorde zuten, okupaturik.

Madrideko zenbait enpresatan (burnigintzen) egin ziren ere geldialdiak Gazteizkoaren ohoretan.

Muginenduaren zabaltasunaren beldur, nagusi guak eta Gobernuko anore eman behar izan dute, partzialki bederen, Gazteizkoen eskari batetan: egun bertan, martxoko 8. horretan, Gobernuko, nagusigoaren baitetzarekin, Gazteizen despiditutako 62 langilean berronartzen zituen lanetan berronartzen zituen lanetan, "bake sozialaren onetan".